

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
99n. ZENBAKIA
UZTAILLA
(Garagarrilla)
1986**



UDALDIA:

- Ondartzak
- Mendiak
- Erriak...

(Gaminiz-Plentzia)

LAUAXETA ETA AITZOL IDAZLEERI..

Artu dogun idazpuru onegaz argitaldu zan orain aldi aundirik ez dala DEIA egunkarian, esaten, zelan asiak diran "Aitzol" da "Lauaxeta", edo Lauaxeta eta Aitzol bardin doguz batera edo bestera abertzale jator bi orreik, francotarrak erail zituen euzkal idazle azkar bi orrein 50'garren urteurrena dala ta omenaldi maitekor bat egiteko.

Sarritan esanak gara, goratzarre edo omenaldiak omendutekoa bizi dan arte egin bear litzakezala, berak ikusi dagian noraiño eskertua dan bere lana. Aldi onetan, baiña, ez da bardin, euzko gogo-lantze (kultura) eta batez bere erri-jakintza —arloan lanik oparuana egiten aurkitzen ziran aldian erailak izan ziralako jakitun bi orreik. Beraz, ondo irabazita dabe euzkotar guztion, eta alanbe aberleon goratzarre biotzkor bat.

Urkiaga'tar Estepan, "Lauaxeta" ondo ezagutzen genduban, "Euzkadi" egunkariko "Euzkal Atala"n ardurazko jarri ebenik geiago eta, arremon pizkat baiño geiago izan genduban beragaz, bere ta "Uribitarte'tar Ibon", Enbeita'tar Imanol'en bitartez eta laguntzaz asi nintzalako "Euzkadi" egunkari aztu ezindakoan euzkeraz idatziten. Eta, gu lez beste asko be, ikasiak ez gintzazan asko besteren laguntza bear izaten dogu eta, euzkal idazle orreikaz beti euki genduban laguntza.

"Lauaxeta" pizkat illunbe (serio) zan, itz gitxikoa baiña zentzunduna, bear ziran itzak argi ta garbi, ulerkor esatean ebazana. Ez dago guk esan bearrik, olerkari onenatarikoa, euzkal-idazle aberatsa eta itzlari lez, euzkeraz naiz gazteleraz, erraztasun aundikoa eta abots zolikoa.

Bilbo'ra Franco'tarrak sartu ziranean eta beragaz jabetu, gure uri nagusi ori jagoten egondako Ertzain ta gudari asko bertan arrapatu ginduezan eta, gu ara-ona ibilli ondoren, Gasteiz'en karmeldar lekaideak daben lekaidetxea espetxe lez orduan euki ebenez, bertan sartu ginduezan artalde galdu baten antzera, danok alkarren gaiñean, ea "tako" zatar bat esateko be leku barik. Ni, 62 (orixe izan zala uste dot zenbakia) gelan sartu ninduen beste amabi edo amairu lagunekin eta, urrengo egunean lekaideen baratzer atera ginduenean bertan ordu bat bira-biraka gelditu barik egiteko, arabar espetxeratu batek itandu eustan, zin gelatan sartua nintzan eta, 62'an nenguala, esan neutsanean "ortxe beratan egon zan ainbat egunean "Lauaxeta"izen ordeaz ezagutzen zan euzkal idazlea, igaro dogun Ekaina'ren 25'an erailten eroan eben arte".

Orduantxe eta arabar aren bitartez jakin genduban zelan Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta" eraila izan zan Gasteiz'ko ildegian.

Ariztimuño'tar Joseba, "Aitzol", arpegiz ezagutzen genduban, baiña, ez genduban izan berakin ar-emonik. Baiña ori bai, ondo ezagutzen genduzan, edo asko irakurri genduzan beren idaz-lanak, bai gipuzkeraz euzkera txukunean idatzitakoak eta bai gazteleraz, baiña, euzko zentzun zakonez ta mamitsu idatzitako lan goralgarriak. Eta, zelan ez "Aitzol"ek gizarte-arazotzaz egiten zituan itzaldi kementsu ta irakasgarriak? Lan ugari ta bikain orreik izan ziran izan be "Aitzol"ek Franco'tar eraitzalean eretxiz euki zituan obenik astunenak. Españitar menpetzalleak eta euren benetako Aberria, Euzkadi, aintzakotzat artu nai ez daben euzkotar atzerri-zaleak.

Besterik ez bada be orixegaitik, ondo irabazita dabe "Aitzol" eta "Lauaxeta"k, abertzaleok egin geinkioen gorazarririk ospetsuena. Guztiok alegindu gaitzean orretaraxe izan daiten.

ALTUNA'TAR JOSU



AUTESKUNDEA IGARO DA!

ERRIAREN BARRIAK

Nok ez dau izaten noizean bein erria zelan dagoan jakiteko era batzuk aurkitzeko egarria? Batzutan orretarako itaunketak egiten dira eta agertzen diran jakingarriak pozbide izan ez arren, egia norberaganatzeko bidea diralata pozik irakurten doguz.

Auteskundera be erria zelan dagoan jakiteko bidea izaten da. Ba-dago or egiten dan zabalkundearen indar berezi bat eta ori dala-ta, bear ba'da, erritarren pentsaera ta barrumiñak ez dira garbi-garbi agertzen, baiña auteskundearen ondorenak erriaren egoera agertzeko era bat dira, zalantza barik.

* * *

BEERANTZA

Eusko-Alderdi Jeltzaleak berazkadea izan dauala, eta ez txikia, argi agertu jaku.

Zergaitik izan dan? Au be naikoa argi agertzen da gure begien aurrean: Jelkideen alkar ulertu-eziñak dirala zio bat ez dau iñok ukatuko, ez dot uste, eta alkar ulertu-eziñok konpondu egin bear dira, zuzentasuna izpillu dala, abertzaletasuna bide dala.

Orretarako biotz zabaltasuna bear da, aztertzaile edo "kritikuak" esaten dautsenen aldetik eta lege edo "ofizial-bidekoen" aldetik. Arauak bear dira, baiña estuegi artzen ba'dira, kaltegarri izan daitezke. Antxiña esana da "Summum jus summa injuria", Esku-biderik aundiena, oker-biderik aundiena. Araubideak kontu aundiagaz erabilli bear dira ba eta Alderdia barrutik, maitasunaren bidetik, zuzendu.

Alderdikide ez diranakaz alkar-izketak egitea ontzat artzen ba'da, beñago da ori barrukoakaz egitea.

* * *

GORANTZA

Ba-dira beste alderdi batzuk Euzkadi'ren barruan gorakadea egin dabenak, batez be "Herri-Batasuna" ta "Euskadi'ko Ezkerra", bigarren au neurri labur baten.

Zergaitik izan dan? Alde batetik legetua izateak be mesede egingo eutson H.B.'ri, eta ziur-ziur Laterriaren

Ardatzeko Agintariak noizbeinka euren okerkeria nabarmenago agertzea be alderdi onein alde doa.

Egia da, olako gorabeerak gaur batenak eta biar bestearenak izaten dirala eta urrengoan zer jazoko dan aurretiaz esatea arriskugarri dala. Ori ez da aitzu bear.

* * *

ERRI-GIROA

Beste jakingarri batzuk ikusita erri biozkatu egin dala esan lei. Esaterako autarkia emotera joan diranak len % 80 izan zirala eta orain % 67.

Zergaitik izan dan, barrero be? Ba-dira sakontasun aundirik ez dauken zio batzuk. Egualdi ona izan zala eta errikideak ondartzetara joan eta auteskundeagaz batera ludiko Ostikoketa (futbol)-jokoak izan dirala...

Baiña ez ete dago zio eraginkorragoren bat? Ez ete da gero errikideak biozkatu egin diralako?

Erriaren aurrerapenerako gauza batzuk agirian dagoz: Kale ta bide-konpontzeak, esaterako, baiña ori ikusi arren, erria gogotxatu egiten ba'da, sasoz osagaiak billatu bear dira.

* * *

ABERTZALETASUNA

Toki guztietan, eta gure aberrian batez be, abertzaletasuna zabaldu ta sakondu bear da, orretarako geure kondaira, izkuntza, elertia ta jakintza osoa geiago zabalduz.

Baiña abertzaletasunak arerio aundi bat dauko gure artean: Burruka-giroa. Giro onek epe baten barruan abertzaletasuna biztu egiten dau, baiña burruka-giroaren epea geiegi luzatzen danean, barru-miña gaiso biurtzen da eta kaltegarri zarrentzat naiz gazteentzat.

Abertzaletasuna sendotzeko ta iraunkor biurtzeko bake-giroa bear da eta bake-giro onek abertzaletasunera-ko gogoia bizkortzen dau.

Noiz lortuko ete dogu gure erri zauritu onetan alkartasun eta bake-giro au? Danean agertu bear ete da burrukea, izkuntza-arloan, politika-bidean, erlejiño-arazoetan, aberri-bizitzan? Noiz alkar onartuko gara, garan lakoak, alkar obetzeko eta bakean biziteko? Egun ori etorten danean abertzale izatea ez da izango gizaundien lorpena, erri zeirena baiña.



EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA NAPARROA “Lingua Navarrorum” (II)

Azkenko gure idazlanean, Xabier Doneak bere burua euskalduntzat arro nola agertzen eban aurkeztu genduan. Aztu egin yatan bere itzak, berak idatzi ebazan lez jasotzea. Eta, dokumentuak garrantzi aundiko gauzak diralako ta idatziak izan ziran lez aurkeztu bear diralako, emen ipiñiko dodaz (Xabier'en itz aiek), gaztelera, berak idatzirik utzi ebazan bezala: “Francisco de Mansillas y yo estamos con los christianos del Cabo de Comorin. A más de un año que estoi con estos christianos, de los quales os hago saber que son muchos y se hazen muchos christianos cada día. Luego que llegué a esta costa donde ellos están, procuré de saber dellos el conocimiento que de Christo nuestro Señor tenían: y demandándoles acerca de los artículos de la fee, lo que creyan, o tenían más aora que eran christianos que quando eran gentiles, no hallava en ellos otra respuesta, sino que eran christianos, y que por no entender ellos nuestra lengua no sabian nuestra lei, ni lo que avian de creer; y como ellos no me entiendiesen, ni yo a ellos, por ser su lengua natural malavar y la mia bizcaina, ayunté los que entr'ellos eran más sabidores, y busqué personas que entiendiesen nuestra lengua y suia dellos” (“Monumenta Historica Societatis Jesu”. Vol. 67. 161 or.).

* * *

1544'aren Ilbeltzeko 25'ean idatzi zuan ori Xabier'ek. Eta ... bere burua euskaldun agertzeagaitik!, eta euskaldun izateaz oso pozik eta arro zegoalako bakar-bekar-bakarrik!, idatzi zuan ori. Ez zuan beste arrazoirik bere izkuntza “bizcaina” zala esateko. Xabier'ek portugaleraz itzegiten eutsen komorindarrei, ez euskeraz; Bitartekotza egiteko “aien eta gure izkuntzak” ezagutzen ebezan jendeak billatu ebazala dioskunean, Portugal'eko eta Komorin'go izkerak ezagutzen ebezanak billatu ebazala esan nai dausku, ez komorinera eta euskera ezagutzen ebezanak. Erroma'ko bere lagunei berriz, gaztelera idatzi eutsen albiste guzti auen berri emateko. Komorineraz gaiñera izkuntzaren bat aipatzekotan, gaztelera edo batez ere portugaleraz aipatu bear, ebazan Xabier'k, baiñan ez iñola ere, euskera. Bera, ordea euskalduna zan-eta!, euskalduna izateaz pozik eta zoriontsu aurkitzen zalako, biotz-biotzetik irten yakon BERE IZKUNTZA EUSKERA zala esate ori: ez latera!, ez portugaleraz!, ezta gaztelera edo prantzera ere!, euskera baizik!!! Beste izkuntza aiek danak ederki ezagutu eta idazten ebazan Xabier'ek, baiña aiek ez ziran bere izkera; berea, Euskera zan; Euskera bakarrik. Orrek adierazten digu Xabier'ek Euskera nola eta zenbat maite eban, eta nolako euskaldun jatorra zen bera! Aintza zuri Xabier, Naparroa'ko seme bikaiña eta zaindari ospetsua!

* * *

Izan eban Naparroa'k, Xabier baiño irureun eta geiago urtez leenago beste seme jator bat ere: Rada'ko Errui Ximenorena: Rodrigo Jimenez de Rada, Españi'ko edesti-liburuetan. Ez zan Santua izan baiña bai gizon txit ospetsua: Españietan, XIII mendean ospetsuenetakoa, Naparroa'ko Santxo VII'aren, Gaztelako VIII Alfontso'ren eta garai artako Aitasantuen adiskide aundia. Naparroa'ko Erribera'n jaio zan, Rada'n bertan seguruaski, orduan abizena sorterriaren izenari aitarena edo beste

aide batena erantsiaz egiten bait zan. Jaio, 1770'etik 1180'a bitartean jaio zan, eta Toledo'ko Goigotzai eta Gaztela'ko Erregeen lenen-aolkulari izatera iritxi zan. Aolkulari leial izan eben, bera, Aitasantuek ere, III Inozentzio'k bereiziki. Gaztela'ko Kantziller edo Jaurlaritzaren Lendakari egin eban VIII Alfontso'k eta kargu ortan jarraitu eban I Enrike'ren eta III Fernando Santuaren denboretan. Arras ezaguna da idazle bezala ere. Berak idatzi bai eban “Re Rebus Hispaniae” deritzan kronika. Baiñan kargu oiek ez eutsoen kendu burutik euskaldun zalaren oroitza; ezta, biotzetik, euskaldun izanaz jarraitzeko arrotasun santua ere.

Hans Küng suizitar teologilar ospetsuaren liburu batean irakurri neban Rada'ko Errui Ximenorena'k Letran'go IV Kontzilioan euskeraz mintzatu zala (“Estructuras de la Iglesia”, Barcelona. 96 or.). Hans Küng'ek berriz, Hefeletan “Kontzilioen Edestia”tik artu dau albiste ori. Ona zer dion Hefeletan liburu orren V tomo'ko 1320'garren orrian:

“Bere jakintzaren adigarri bikaiña eman zuan (Rada'k) apaiz ez ziranentzat (Kontzilioan) lateraz esan-berria eban itzaldiaren itzulpena frantzeraz, inglanderaz, alemanieraz, NAPARRE'RAZ, eta españieraz, jost izkuntza ezberdiñetan!, egin eban”. Jakintza, arrigarria, bai noski; baiña gura izan baleu, eberkeraz ere egin eikean Rada'k, izkuntza ortan ere ederki eta errez mintzatzen bait zan!

* * *

“Apaiz ez ziranentzat” egin ebazala lateraz emandako itzaldiaren itzulpen oiek, diñosku Hefeletan; eta, bai, 1215'garren urtean Erroma'ko Letran deritzan auzoan ospatu zan Kontzilio artara apaizak ez ezik joan ziran ez-apizak ere. Ekumenikoa, au da, Mundu Osoko Elizarena izan zan Batzar ura, eta Kristaudi guztiko jendeak bildu ziran an; baita euskaldunak ere.

Baiñan, bai ote zan an apaiza ez zan euskaldunik?; eta apaiza ez zan euskaldunik an baldin bazan, bai ote zan bat bakarrik lateraz ez zekianik? —orduan oraindik latera oso zabaldua bait zan—, edo beintzat, bai ote zan bat bakarrik edo frantzeraz edo españieraz ez zekianik?

Ez zuan beraz, an, Rada'k, euskeraz itzezin bearrik. Zergaitik egin eban? Bera euskalduna zalako, euskera maite ebalako, euskaldun izatearen poza oso barruan sentitzen ebalako, euskera ederra iduritzen yakolako eta beste edertasun orren ezaubidea eman gura eutseelako! “Bost izkuntzetan itzezin dautsuet, baiña izkuntz oietan ederrena nere euskera da; ni euskalna naiz eta ez naiz emendik euskeraz itzezin gabe joango; entzun eizue ba nere izkuntzaren doñu atseñi, eder, bikaiña”, pentsatu-edo eban Rada'k, eta, ozenki, euskeraz mintzatzen asi yaken.

“No tiene la Iglesia española del siglo XIII figura que puede hombrarse con la gigantesca del arzobispo, historiador, político y constructor, que se llamó Rodrigo Jiménez de Rada” (B.A.C., “Hist. Iglesia”, t. II, p. 579) Egia! Alagutziz, pozik agertzen eban bere burua euskaldun, Naparroa'ko seme jator arek! O!... zorieko Rada!!!

EMAKUMEAK ALKARTASUN BARRIAN (2)

Erodias (Erodes Antipas'en emaztea) (Mk 6, 19)

Herodías le aborrecía (a Juan el Bautista).

Lei: Halacotz Herodias ayher cayón.

Duv: Herodias horren gatik, Joannes galdu beharrez zabilan.

Ol: Argatik Erodia ataizean zebilkion.

E-B: Erodias'ek Jon'i amorrua eutsan.

Febe (Zenkreas'ko diakonisa) (Erm 16, 1)

Os recomiendo a Febe, nuestra hermana, diaconisa de la Iglesia de Cencreas.

Lei: Gommendatzen draucuet bada gure arreba Phebe, Cencreco Elicaren nescato dena.

Duv: Gomendatzen darotzuet berriz, gure arreba Phebe, Zenkreasko Elizaren zerbitzuan dena.

Ol: Goraste dizuet gure arreba Pibe, Kenkereiko elizaren mirabea.

E-B: Zenkreas'ko elizearen laguntzaille dan gure arreba Febe'ren alde eskatzen dautsuet.

Isabel (Jon Bateatzaillearen ama) (Lk 1, 24)

Días después, su esposa Isabel quedó embarazada.

Lei: Eta egun hayen ondoan haren emazte Elisabethe concebi cecan.

Duv: Egun horiez geroztik, Elizabeth, haren emaztea, izorra gerthatu zen.

Ol: Egun ayen ondoren Elizabet, aren emaztea, aurdun gertatu zan.

E-B: Egun batzuk geroago, aren emazte Elizabet seindun egin zan.

Jezabel (emakume sasi-profeta; irudizko izena, urrean) (Ag 2, 20)

Jezabel, esa tu mujer que se llama profetisa...

Lei: Iezabel emazteak (ceinec eguiten baitu bere burua profeta)...

Duv: Jezabel, bere burua profetatzat ematen duen emazteki bat, ...

Ol: Or bait-dabil Yezabel emakume ori igarle dala esaten, ...

E-B: bera profeta dala diñoan Jezabel zure emazteak...

Joana (Jesus'i jarraitzen eutsoen emakumeetarikoa) (Lk 8, 3)

Juana, mujer de Cusa, un administrador de Herodes, Susana, y...

Lei: Eta Joanna Herodesen procuradore, Chuz deitzen cenaren emaztea, eta Susana,

Duv: Joana, Herodesen ethegizonaren, Kusaren emaztea, Susana, eta...

Ol: ta Yone, Erodes'en ethezain Kusa'ren emaztea, Susane, ta ...

E-B: ta Yone, Erodes'en otseinburu Kusa'ren emaztea; Susana, eta ...

Julia (Erroma'ko kristau emakumea) (Erm 16, 15)

Recuerdos a Filólogo y a Julia.

Lei: Salutaitzacue Filologo, eta Julia.

Duv: Agurrak Phillogori eta Juliari.

Ol: Gorantziak Filologo ta Juli'ri.

E-B: Gorantziak Filologo ta Julia'ri.

Kandaze (Etiopar erregiñen izenburua) (Ap. Eg 8, 27)

... alto funcionario de Candace, reina de los etiofes,

Lei: Ethiopianoen reguina Candaceren azpian manamendu gucia cuenic,

Duv: Ethiopiako erregiña Kandazen azpiko handietarik,

Ol: Aitiopi'ko anderegoi Kandake'ren inguruko aundizki ta ...

E-B: Eta Etiopia'ko erregiña zan Kandaze'ren inguruko aundiki ta ...

Klaudia (Erroma'ko kristau emakumea) (Tim 2.^a, 4, 21)

Te saludan... Claudia y todos los hermanos.

Lei: Salututzen auté ... Claudiac eta anaye guciéc.

Duv: Klaudiak eta anaya guziek goraintzi.

Ol: Agur dagizue... Kalaudi andereak, eta senide guziek.

E-B: Agur egiten dautsue ... Klaudia'k eta anai guztiak.

Kloe (Korinto'n bizi zan emakumea) (Kor 1.^a, 1, 11)

Me he enterado, hermanos míos, por los de Cloe, que existen discordias entre vosotros.

Lei: Ecen, ene anayeác, declaratu draudate cuecaz Chloes baithaco'ec, ecen discordiác diradela cuen artean.

Duv: Ezen, anayak, Kloeren ethekoek ene ezagutzera ekharri dute, eskatimak zuen artean badirela.

Ol: Koloe'nekoeki entzunda bait-nago, ene senideok, zuenean eztabaidak dirala.

E-B: Zuen artean, ene anaiok, eztabaidak dirala jakin dot Kloe'nekoen bidez (Kloe'koen: irar-utsa).

GURAI A ETA BAÑEZ'en GUDAK

SENDI bi oneik, LAU gizalditan burruka uts baten jardun eben. Bi famili oiek gura ebelako Leniz'ko lurretan, baiña-ala-ta-be, obeto esateko, ARRASATE'n agindu.

Gorago esan doten bezela Arrasate, lau bidetako GILTZEA zan.

Onein Sendi bien ezin-ikusia ta gorrotoa, TRASTA-MARA'ko etxe denbora guztian izan zan eta luzeroago be bai.

España'ko erregeen arteko biurkunak eta gudak, ondo aprobetxatuak izan ziran, Sendi bien artean, euren ASMOAK ondo betetzeko, ez egoalako España'ko erregeen artean aginpide onik.

Baiña Sendi biak bakarrik, ez ziran izan burrukaldietan.

Euren inguruko guztiak, nastuta ibilli ziran, bai batekin edo bai bestaldekoakin; borondatez edo derrigorrean.

Beste alde batetik, GURAI A'ri laguntzen eutsen OÑAZ'tarrak eta BANEZ-eri GANBOA'tarrak.

Famili bakoitzak eukezan euren Alkateak, Batzar Nagusia, Gudariak, Epailea eta abar; guk orain esango geunke, ERRI baten egongo zirala BI erri.

Dan-dana emen agertzeko, ain luzetxoa dan lez, ta ikusi daigun zelako gorrotoagaz ebiltzen ziran bata bestearen aurka, emen ipiñiko, dot ALE edo AZTANAR-TXO bat.

Aldi baten, etozan ferrari batetik gizon bi, Martin Bãñez Artazubiaga eta Juan Ibãñez.

Beste aldeko batzuk atrapau ebezan bidean eta ZURI-KERI aundienagaz ikaragarriko eriotza emon eutsien.

Bakoitza, SALDI BIEN BUSTENETIK LOTURIK, bidean zear narrazean edo tarrazean eroan ebezan; IL Arte.

Jente guztia ikaratuta gelditu zan.

Gipuzkoa'ko Alkate guztiak bat eginda, asmo bat artu eben: Olako biotz gogorrekoei, eureri be, eriotza bardiña emotea.

Emen daukagu jakiteko zer garan, aldi batzuetan, abereak baiño jokabide txarragoa eukiten dogula.

Eta guztia, bakoitzaren KASKETALDIA betetzeko.

ARRASATE'ko ERREALDIAK

Ainbeste amorru, gorroto ta okerkeri, ez da amaitzen gizon batzuk illik. ARRASATE IRU bider gitxienez erre zan.

Lenengoa 1.305'an, bigarrena ta gogorrena 1.448'an, San Juan Bizperan eta irugarrena 1.666'garren urtean.

Danetatik txarrena ta gogorrena bigarrena izan zan.

Ta dana izan zan Bañez Sendiari kendu eutsolako, bertako aginpidea ta erritik kanpora bota ebelako.

Une onetan, agindu eban SUA emeteko ERRIARI, Soloko UZTA guztiei, ta baita ere basoko zugatz edo arbola guztiei.

Onelan gure Arrasate eta bere lurraldeak KISKILDUTA guztiz gelditu ziran.

España'ko erregeak agindu eban bertako ZERGAK ez ordaintzeko, erria bertako inguruak ondo jaso edo konpondu arte.

ARRASATE'ko JAKIN-MIÑAK

Mondragon'eko lenengo izena ei zan ARRASATE.

Alfonso X garrenak, Espãñeko erregea zala, agindu eban Mondragon ipintea. Zergaitik? Orixe ez dakigu, ta Edestiak ez dau ezer esaten.

Baiña ba-dakigu emon eutsola FORUAK eta beste Lege Berezi batzuk. Orain jenteak, ala-ta-be gazteak, ARRASATE deitzen dautsoe.

Bertako okintegi nagusienak be izen ori darabil aspaldian, eta ikaste-etxe batek be bai.

BALERIO DEUNAREN "KOB A"

Toki orretako iparraldean Udalamendi edo Udalaiz dago.

Mendi onen egoaldera, aldapa erdian, aurkitzen da "KOB A" ori Sarreran, aoa oso estua da, baiña bein apur bat sartu edo jatxi ezker berantz, ARETO eder bat aurkitzen da.

Beraren neurkiñak oneik dira: 300 OIN luzeran eta 40 OIN zabaleran. Esaten dabe bertan sartu leiketela ango inguruko auzo bateko eleiza bat barruan. Nik ez neuke esango ezetzik, birritan barruan egonda nago ta.

Aretoan agertzen dira AITZ-NEGAR eder ta dizdiridunak, (Estalakitak) oneik goitik bera; baiña ba-dagoz beti gorakoak be, ARRI-NEGARRAK (Estalagmitak).

Espãñeko Erregiña Isabel II garrena bertan egon ei zan 1845'garren urtean GUELAZIBAR'en bustialdiak artzen egon zanean.

Gauza politagorik ez ebela ikusi, izadiak eginda, esan ebela, diño. Emen ikusten da argi ta garbi, IZADI AK zelako Kasketaldiak eukiten dauzan edonun.

GUELAZIBAR edo SANTA AGUEDA

Arrasate'ko lur barruan toki polit ta eder bat dago; toki orren izena, Guelazibar.

Ibar estu baten dago, baiña bai polita dala toki ori. Murumenditik begiratuta, esan leike, BELEN edo Estalpetxo bat dala. Bertara begira, bat ez da nekatuten, Murugaingo tontorretik.

An ez dago etxe zarrrik, danak agertzen dira barri-barriak lez. Ango etxerik garrantzitsuena GAIXO-etxe bat da.

Bertan dagoz burutik ondo ez dagozenak. Askotan egon naz barruan ta gaixoen aotik bein baiño sarriagoan entzun dodaz itzaldi ederrak, eta ez ain arau-gabekoak.

Toki onetako URAK, ur gorriak edo Metal urak ei dira, ta bertara joaten dira gaixoak eta larruan zerbait min daukenak.

Isabel II'garrena emen egon zan 1845 garrenean.

Lengo MENDE azken inguruan, bertan aurkitzen zan, on Antonio Canovas del Castillo, Espãña'ko Ministrariaren Lendakaria.

Baiña gizon onek ALDI txarra izan eban, Italia'ko gaizkille batek Miguel Angiolillo'k, il egin eban bertantxe.

Au gertatu zan 1897 an.

ITXEBERRI'TAR ISIDOR



ULRIKE'RI ERANTZUNA (JARRAIPENA)

Zergaitik jarkera orreitan burura ez ekarri beste lagun edo ezagunak eta zelan eurai lagundu, zelan mesederen bat egin?

Zergaitik une oneitan ez asmau beste urko lagunai begirapen samurra egitea?

Zergaitik ezin leike, gitxienez, egurats zabalera urten eta ibillaldi bat egin, lagun gitxiaren aurpegia ikusten eta eurai entzuten egon-bearrean?

Zergaitik ez alegindu beintzat norberari ain zuzen lagundu leikioen kako-mako, trikimaillu txiki onuratsuak aurkitzen?

Zergaitik ezin leitekez ulertu gorabeera-aldi oneik eta onartu ez dirala betiko izango ondo dakien norbaitek lez?

Zergaitik norberaren buruari gogor ez eskatu iñori kalterik ez egiteko?

* * *

Gizartean lagun asko ezagutzen dodaz olango zertzelada ta jarkeretan, egoera au onartzen eta itxaropenaz eroaten dakienak eta orrek ez dauala beti irauten eta bizitzaren ibilladian illunaldi orretatik azkenean urten egiten dala ikusi dabenak.

Giza-bizitzan izan leitekez asko luzatzen diran zertzelada ta gorabeerak eta goiberaldiari azpiratzen ez jakonak eta adimenez adoretu jotatzen dauanak urtetan dau nagusi. Ba-daki bere bizitzan gatx au daukana eta kristiñau-bidez aurrera joatea lortuten dau.

* * *

Barrero diñotsut: Aolkua emon aurretik zure goiberaldi edo larritasunaren zioak eta euren sustriaiak non daukazan banaketa geiagogaz arakatu ta jakin bear neukez. Jarraitu egizu zeaztasun eta argitasun geiagogaz ori agirian ipinten. Olako arazoetan, norbera izan leiteke batera gaisoa ta osagillea, norberaren buruari barre egin leio, norbera alegindu ardura larregirik ez artzen, norberak agertu ikusmen zoliagaz goiberaldiaren zergaitia zein dan. Bear ba'da, etsipena kementsu iruntzi-bearrean, etsipenagaz bizi izaten da eta bizitza osora zabaltzen da, bear-izan barik, goiberaldiaren artegasuna.

Zeuk begiratu egizu zergaitik minduten zarean zure umorea aldatzen dalako; ez daukazu etsipena izateko benetako errazoirik. Astiro-astiro eta Jaungoikoari begira zeure buruari eusten ikasi bear dozu, egoerea jasan, poztasuna lortu, norbera zelakoa dan eta norberak zer dakian aitzu barik.

Zu oraindik gaztea zara eta zugandik urten leike, ez bakarrik jauntxuen biziareak, baita gizabideko adiereak eta balio daben nekeak eroteko bideak be.

Edozein erantzun artzen dozula ondo diñozu. Erantzun au ez jatzu, bear ba'da balioko izango, ez jatzu izango pozbide, baiña alegintzen da beintzat aolku oneri adibideren bat emoteko. Aolku oneik emotea itxuraz erreza izan arren, izatez ez da ain erreza.

Azken-oartxu bat: Zure senditik aldendu egin gura dozula diñozu. Luzaro baten au bearrezko bide bat izango da zeure burua egiz aurkitzeko, baiña ez da egin bear indarkeriz eta iraultza-bidez. Bitartean errazoi batzukaitik edo beste batzukaitik, zeure sendian bizi bear ba'dozu eta zure senideak zeure senetik ateraten ba'zaitue, esaten dozun lez, nik auxe eskatzen dautzut: Alegindu zaitte sendi arazoetara sartzen eta eurakaz erantzukizuna izaten eta euren alde otoitz egiten. Jakitekoa da, norbera besteai zerbait eskatzen dabillenean eta norberak zeozer emon bear dauala ikusten dauanean, sarritan artu-emonak aldatu egiten dirala eta dana biurtzen dala errezago. Zure guraso ta anai-arreben alde otoitz apur bat egizu.

Biotzez Kristo'gan zeurea dozun.

KARL RAHNER
(Aita Letona'k euskeratua)

POZAREN ATZETIK

Abererik ez arren aberats naiz ni oso, eguzkian baitakarst goizoro urre moltzo t'egunaren betean banoa ni pozarren.

Biotzaren baratza izarez deust bitxitu egunabar agurrak, begi ederrak ditun neskato pinpirinak. Tantz pozaren intza.

Barrea dot saltoka datrکیدanaren zai. Kezkak iruliz noa, elaiak baizen alai. Itxaropena naiz ni, zoro, zeru igoka.

Gau bako egunean udabarri da beti —illunai igesika, argiaren zalgurdi— Agurka nagokio izar baten gainean.

Poza doa pozarren ibar t'aran artetik; neu be beragaz noa itxaroen eskutik. Gaurtik aurrerakoa nigan danik ederren.

Pozaren zipriztinak nai ditut ene barne. Itunaren legorrak eza daro erne. Nik bizi-lorak maite, barre txorta bikainak.

Lañoetan etxerik ba neuko. Bizia zer? Zoroaldi zoroa, itxaro ate eder. Emazte, etxe, erri, bertso katez loturik.

A. BIDAGUREN

ZUGATZAK ETA LANDARAK ALKARTASUN BARRIAN

ZER aldizkari onen 85'garren zenbakian urrengo oneik galduta geratu ziran irarkolan.

(Lei = Leizarraga, 1571; Duv = Duvoisin, 1865; Ol = Olabide, 1958; E-B = Euskal-Biblia, 1976)

Olivo (Agerpena 11, 4)

Ellos son los dos **olivos**.

Lei: Hauk dituk bi olibák.

Duv: Hekiek dire ... bi **olibondo**.

Ol: Auek dira ... **olibondo** biak.

E-B: Oneiek dira ... **oribondo** biak.

Olivo silvestre (Erroma'koai 11, 24)

Porque si tú fuiste cortado del **olivo silvestre** que era por naturaleza...

Lei: Ezen baldin hi naturaz **bassa** zen **olibatik** ebaki izan bahaiz...

Duv: Zu alabainan ekharri zaituen **olibondo basakatik** ebakia izan bazare...

Ol: Alabaña, basoriondotik erne ziñan ori, andik erauzi ta...

E-B: Izan be, basoriondotik etorri izan zintzazan ori, andik ebagi ta...

Higuera (Mateo 21, 19)

y viendo una **higuera** junto al camino,

Lei: Eta ikusirik **fikotze** bat bidearen gainean,

Duv: Eta **pikondo** bat bide bazterrean ikusirik,

Ol: Ta bide ondoan **pikondo** bat ikusirik,

E-B: eta, bide-baztarrean **pikondo** bat ikusirik,

Sicómoro (Lukas 19, 4)

Se adelantó corriendo y se subió a un **sicómoro**.

Lei: Eta aitzinera laster eginik igan zedin **bassa fikotze** batetara.

Duv: Eta aitzinerat laster eginik, igan zen **sicómoro ondo** baten gainera.

Ol: Antxintxika, beraz, aurea artuz, **astigar batera** igo zan.

E-B: Ariñeketan aurea artuta, **astigar** batera igo zan.

Oarra.--Astigar = arce. Azkue'k: "Ikozoro (manuscritos de Londres), estramonio (Bot.) = Según otros es el sicómoro". Bizkaia'n ikozoro ta basiko be esaten ei'da, Muxika'ren iztegiak dakarrenez --non?--, eta piko-zoro Laburdi'n. Edozela be, pikondoaren antzeko zugatza ei'da, eta andia izan be.)

Morera (Lukas 17, 6)

Si tuviérais fe... diríais a esta **morera**: (Beste batzuek, **morera**'ren ordezkari **sicómoro** dakarre.)

Lei: Baldin fede bazindute... erran ahal zinezakeote **marzuzer** huni:

Duv: sinhestea bazindute, **martzoka ondo** horri erran ziniozokete

Ol: siñeskuntza ba'zenute, **masustondo** orri... zuek esan ezkerro,

E-B: sinismena ba'zeukee, **masustondo** orri... esango zeuskioe,

Trigo (Mateo 3, 12)

recogerá su **trigo** en el granero

Lei: eta bilduren du bere **ogibihia** granerera.

Duv: selharura bilduren du bere **bihia**. (Beste toki batzuetan, **ogia** diño.)

Ol: ta bere **garia** mandioan bilduko du.

E-B: bere **garia** garautegian batuko dau.

Espiga (Markos 4, 28)

La tierra da el fruto por sí misma; primero hierba, luego espiga, después trigo abundante en la espiga.

Lei: Ezen bere buruz lurrak fruktu ekarten du, behin belhar, gero **buru**, gero ogi bihi bethea **buruan**.

Duv: Ezen lurrak berenez ematen du lehenik belharra, gero **burua**, gero ogia, **buruaren** bethea.

Ol: Lenbizi belarra lurrak berez bait-dakar; urrena **burua**, gero **buruan** ale bethea.

E-B: Lurrak berez frutua dakar: leenen, bedarra; gero, **galburua**; gero, **garia** eurrez **galburuan**.

Paja, brizna eta viga (Mateo 7, 3)

¿Cómo es que miras la brizna que hay en el ojo de tu hermano, y no reparas en la viga que hay en tu ojo?

Lei: Eta cergatik behatzen duk eure anayeren begiko **fitsera**, eta eure begiko **gapiroari** ezatzayo ohartzen?

Duv: Noletan berriz, zure anayeren begian ohartzen zare **phitsari**, eta zurean ikhusten ez duzu **laza**?

Ol: Zer dala-ta, zure senidearen begian **agotza** dakusazu, ta zerorren begian **abea** ere ez dezu oartzten?

E-B: Zegaitik ikusten dozu zure anaiaaren begian dagoan **samarra**, eta ez dozu zeure begian dagoan **abea** ikusten?

Paja (Lukas 3, 17)

pero la **paja** la quemará con fuego que no se apaga.

Lei: baina **lastoa** xoil ererren du bihinere hiltzen ezten suan.

Duv: **lastoak** berriz, ezin iraungizko suan ererren ditu.

Ol: **lastoa** ezin itzungi diteken sutan erreko du.

E-B: **lastoa**, barriz, itzungiten (atzamatzen) ez dan sutan erreko dau.

Tabla, tabión (Apostoluen Egiñak 27, 44)

y los demás saliesen unos sobre **tablones**,

Lei: batzu **taula** gainetan,

Duv: batzu **ohlen** gainean,

Ol: batzu **oletan**,

E-B: batzuk **ol-gaiñetan**,

Agujón (Korinto'koai 1.^a, 15, 55)

¿Dónde está, oh muerte, tu victoria? ¿Dónde está, oh muerte, tu **agujón**?

Lei: O herioá, non da hire viktoría? o sepulkreá, non da hiri **eztena**?

Duv: Oi herioa, non duk hire garhaizia? oi herioa, non duk hire **eztena**?

Ol: Nun dago, erio, zure gurenda? nun dago, erio, zure **eztena**?

E-B: Nun dago, eriotza, zure garaipena? Nun dago, eriotza, zure **eztena**?

ESAKUN EZ EGOKIAK SINISTEDUNENTZAT

Ba-dagoz gure izkuntza eder Euskerean geure kristiñauen sinismenerako esaldi egokiezak.

Sarriaskotan gure arteko senide, lagun edota edozein norki pertsona il izan dana gogoratzen dogunean esaten dogu begiramen gitxiz: "Urlia zana".

Esakun onek gu fededunon belarrietan ondo ots egin leike?

Zer ba, munduan izan zan gure ezagun ori ez da orain?


Fedeak diñosku baietz. Il ondorentik gorpu obiratu usteldu egingo da ta auts biurtu, bere espiritu-gogo-arimea bizi da Kristo-Jainkoagaz, Berbizkunde Egun Orokorrean, Gorputz ta Arimea jaio zan lez, bat eginda izateko.

Orregaitik ez erabili esaera: "urlia zana". Zorionez, bai Euskaldunen artean erabilten dogu be il dan gure ezagun baten gomutako, lez "Goian Bego" Bai ederto dagoa-la esanda!

ATSEDEN BEGI BAKEAN!

Otoi onoko au ildakoen Mezatan Eleizeak erabilten dauan azken-esaldi bat lez dago. Zegaitik? Sarkaldeko oraingo andra-gizonak diñoelako "Zerua atsedeen bat baiño ez bada (lozorroa), nekaturik bizitea gurago dot". Orain zortzi edo amar urte direala ni arpidetuta nengoan Ipar Amerika'ko aldizkari katoliku batera Pasiotarrek zuzendari ebazana "Sign". "Atsedeen begi bakean"-iñoan aldizkari orrek-ondo etorren lenengoko gizaldidietan Kristiñauen artean. Ain mindurik, ain nekaturik, beti igeska arerioen jarraiketa, erasoetarik, arnasa estuz antzera, Jainko Aitari eskatu egiten eutsoen betiko atsedeen bat. Baiña gaur andra-gizonek ain eroso ta nasai diran ezker, zoriona ipinten dabe, ez lozorroan, euren almen guztiak nasai erabiltean baiño. Eurentzat otoiitik onena izango litzake: "betiko zoriontasunaren argiak argi egin begio" Edo labur-rako: "betiko zoriona beretzat (eurentzat).

EGILUZE'K



ERLIAK ETA ZORRIAK

¡Zelako jai ederra
gaur ba da egun andia!
Zubek lan egin zenduben
beti gogor ¿ezta, aitita?
Ara ba, ¡gaur eltzen dira
zubentzako egaliak!
Alde guztietatik
dagoz ain beste ikurriñak...
¡Geure erria, benetan abertzalia!

Bai illoba, ikusten dodaz,
ori ba da atsegiña...
Baña, zuk ba dakizu
erle ta zorrien artian
beti dagon alde andia?
Erliak egiten dabe, lorakaz
geutzako ezta.
Geure odola zurrututa
biziten dira zorriak.

Ara ba, egun onetan,
¡Ai, gure Euzkadi maitia!
Euzko-Jaurlaritza'k daukoz
erle gitxi, ta beti ugari zorriak.

UTARSUS

SUAREN ETA GATZAREN ARDURADUN

Gure maitasunezko begiztatze ondorioz
suaren, gatzaren arduradun egin ziñan;
etxeke andra, buru, alkarrezko bat-batan,
orrek lekarken arazo, neke, pozkarioz.

Bateratuak, biok diardugu bai, ekintzan,
gogoz besteratsu gauzak iñoiz egiñarren
guk, egunean eguneangozko alkargintzan,
biotzez diardugu bidea ibilgarriagotzen.

Egun bat Udabarri eta, urrengoa, Negu,
(Uda naiz Udazken), loturazko egutaroz
alkarrez dagigu buruz buru, eskuz esku.

Buruz buru ta, eskuz esku, egunen zoriz
banatuko gaitun eriotzaraño, betikoz,
alkarri lagunduz egungo neke ta, ogiz.

MUNIATEGI-TAR SABIN



LUIS GONZALEZ ETXABARRI, OLERKAI, 1893-1971

GIZONA

Artistak beti dira gizuren; gudaldian eraso ta burruka ekin gordin-latzak irabazten dabezanak baizen errime ta garaille. Egiazko artistak —olerkari, musikolari ta antze-koak ditut gogoan—, aurrelari joan eta azi ta ezi egin bear dau erria; edo obeto esanik, goretsi ta arnasa emon. Zugatz igaliz betea, emon bei ortik oparo. Adimen-endarrez eta biotz-garrez dizditsu diran lanak, jakiña. Olako izan jakun Gonzalez Etxabbarri, “Aizkibel’dar Bingen” olerkaria.

Ubidea, Araba’ri dautsola, Bizkaiko erri polita. Ementxe jaio zan Aizkibel, 1893-10-8’an. Dendaria zan bere aita eta semeak ikasteko era ohea euki ta liburuakaz zaletu zedin, Gasteiz’era aldatzeko asmoa artu eban sendiak. Koldobika’k an ikasi eban batxillerra, Bilbo’n osaturik ondoren Jakintzea ta Ederti eskolak. Abertzale sutsu gaztetatik. Bilbo’n ba-zan 1904’tik 1937’rarte abertzale gazte guztien biltokia, “Euzko-Gaztedija”; 1914’an, esaterako, Eli Gallastegi zan alkarte onen buru ta Luis G. Etxabarri, idazkari.

Idazle lez, “Euzkadi” egunkarian idazten eban aspertu barik; baita geroago “Aberri”-n eta “Kendu”-n be, Manu Egileor, Arrien, E. Gallastegi, Uribe-Etxeberria ta beste batzuekin. Euskeraz eta erderaz iñarduan. Illunean argi egin nairik beti. 1921’tik 1924’ra zuzendu eban “Aberri”. Urte onetan, Primo de Rivera’reñ nausitza aldiñ, atzerri-ra iges egin bear izan euskuen abertzale askok: M. Egileor’rek Lapurdi’ra jo eban, E. Gallastegi’k Mexiko’ra, Robles Arangiz eta Luis G. Etxabarri’k Argentina’ra.

Andik be lan ederra egin eban Etxabarri’k. Beronen idatziak daurkiguz, eta ugari, Bilbo’ko “Euzkadi”-n eta “Aberri”-n, eta Buenos Aires’ko “La Nación”, “Nación Vasca”, “La Baskonia”, “Euskalduna” ta “Mundial” aldizkarietan; baita E. Gallastegi’k Mexiko’n ateraten eban “Vida Vasca”-n be. Ogetabost bat urtean, barri emoilte izan zan “La Nación” egunerokoan. Buenos Aires’en il zan 1971-8-7’an.

Bakotxak dogu geure deia, ari edo oni ekiñez, ari edo oni guna aterateko. Idazletza eder jakon ubideatarrari, gatzetxotik ortan asi zan eta il arteraiño guztian ortan jarduna dogu. Etxabarri jaiotzez zan euskaldun, “Euzkeltzale-Bazkuna”-koa; 1918’an, alkarte oni eskiñi eutson bere poesi-liburu “Urretxindorra”.

Aren erriko euskalkia erdi bizkaitar erdi arabar dozu. Izparringietan idatziz euskera landua eban. Aditz sinteti-

koa darabil, “dil” (ilten da) ta olakoak Lauaxeta’k baiño leenago sartuz. Lan jatorrak eta itzulpenak argitara eban. Ez da, beraz, arritzekoa 1918’an Euskaltzaindia sortu zanean berau be Oñati’n aurkitzea. Euskal Foru Aldundiak an lau gizon aukeratu zituan ortarako araudia antolatu egien, R. M. Azkue, Artur Kanpion, Eleizalde’tar Koldobika ta Juli Urkixo; urrengo batzar batean onartua izan zan egindako araudia, baita euskaltzain osoak eta urgazleak izendatu be: Luis G. Etxabarri be, Bizkaikoen artean, antxe egoan urgazle lez. Etzan edozein moduko gizonen aukian jarri, lagunkide bait ebazan: Bizkai’tik, Seber Altube, Federiko Belaustegigoitia, Ebaristo Bustintza, Jose Maria Errazti, Jon Gurutz Ibargutxi, Gabriel Mantrola, Nazario Oleaga, Urriolabeitia’tar Amantzi ta Paulo Zamarripa.

IDAZLE

Ogibide lez eban lumaren zeregiña, eta gogaitu barik idatzi eban. Esan dogunez, ikasteak amaitu zituaneke asi zan idazten. Maite eban bere erria ta ak erabilli euskuzan gairik geienak, ezpai bage aberkoiak. Bere izenez be izenpetzen ebazan arren, lanik geienak sasi-izenez, “Aizkibel’dar Bingen” izen-ordez etozan aren lanak. Bakotxak daki zergaitik joten dauan bide ortatik. Erbestean egoala, frantsesetik eta inglesetik itzulitako lanak ez ebazan gitxi emon Buenos Aires’ko “Nación” egunkarian.

Liburu lez argitara zituan lanak: 1) *Ipuñ aberkoyak* (Bilbo, 1917), 102 orrialde; 2) *Urretxindorra* (Bilbo, 1918), 145 orrialde; olerki liraiñak, aberkoiak geienak, eleiz ta zeru usaiña daroenak ez gitxi; 3) *Cuentos patrióticos* (Bilbo, 1920), 187 orrialde; 4) *Arana-Goiri, bardo de la Patria* (Buenos Aires, 1925), 36 orrialde, itzaldia; 5) *Cantos de Euzkadi* (Buenos Aires, 1925), 84 orrialde; 6) *La destrucción del País Vasco* (Buenos Aires, 1937). Beste lan asko daukaz kazetari lez idatziak; olerkari lez ez zituan gaizki biribiltzen bere koplak. “Hermes”, “Patria Vasca”, “Euzko Deya”, “Idearium”, “Euskal Esnalea”, “Vida Vasca”, “Euzko Enda”, “Egan” eta olakoetan dazot Aizkibel’en neurtitzak.

“Lan guztiotan —Ander M. Iruxo’k idazten dauanez— aberriakiko biotz-zarrazta dozu nagusi. Onetan leial jokatuta eban beti, naizta anai arteko burrukak eta ondorengo Laterri nagusi arteko gudak, erri-urruntasunak eta bere emazte ta alabagandik bananduta bizi bearrak ematen

zion naigabeak —ez zuten iñoiz ere alkar ikusi, aiek bada etziran Arjentina'ra joan, ezta bera Euskalerrira itzuli ere—, edozein politika okerdurako gai egoki egin zutelako, ezker-aldera bultzatu zuten. Joan zan, baiña, gerrea, ta orduan ulertu zuen euskaldun jator batentzat betiko balioak, geureak dirala. Eta poliki poliki lengo bidera biur-tu zitzaigun”.

Lege-gizon bizkor eta idazle trebez gaiñera, ba-eban euskal liburu egarri ta griña bizia be: txiñurri gisa ainbat euskal idazki pillotu ebazan bere bizitzaldian, eta il zanean, Buenos Aires'ko “Laurak-bat”-eko idaztitegirako geratu ziran guztiak. An dagoz gaur be agertoki aratzean.

OLERKARI

Adierazota geratu danez, eder-senaren giltzari emonaz ez dira gitxi ango ta emengo egunkari ta aldizkarietan agertzen diran Aizkibel'en olerkiak. Orrez gaiñ, Bilbo'n egoalarik, “Urretxindorra” eritxon bertso-liburu txairoa eskiñi euskun (Bilbo, 1918), Grijelmo-Alargun-Semien irarkolean, Arbolantxa 1'an, argitaldua, “Euzkeltzale-Bazkuna”-ri opetsua. 50 oler-lan guztiz. Jainkoa, Aberria ta izadia ditu gai nagusi. Batzuk ba-ditu arnas aundikoak: “Sabin'en abintza”, “Josu gurutzaldunari”, “Sabin'en didarra”, “Padura” ta “Ugartia”, adibidez; eta beste batzuk arin eskertsuak: “Txorijaren abestija”, “Maitiena”, “Basetxia”, “Jayokundia” eta “Sukaldian”.

Joan gizaldiko ta oraingoaren asierako euskal olerkariak, erromantikuen garaian askok lez, gure gizaseme gurenak —jakitumak, itxastarrak, politikuak eta abar— kantuz goratzeko oitura eukien. Orrela dagi Aizkibel'ek be “Sabin'en abintza” deritxonean. Irakur aren leenengo estrofa biak:

“Negar samin dagixu, ene Ezkai maitia,
zeure aurpegi illunak darakus alegia,
ta zure bijotz onoi birrinduta dago;
zer-eta negar ori, neu-aberri gaxua,
eta zegaitik illun dozu zure gogua,
ta intziriz eta alaka, zer dala-ta zago?
Sorkaldetik euzkija agiri oi danian
euzko lurra urretzetan beren argi-izpi pian,
asten zara, amatxuboi, bijotzez nekausten;
ta euzkijak barriro bere mosu gorrija
eskutetan daunian, ama tamalgarrija,
zure nekauste ori ezta, ez, amaitzen”.

Beste au, “Azkatasuna” deritxona, arin-ariña dozu:

“Zugatz-abar artian
txio-txioka
eta ijuti dabillan
urretxindorra,
pozik bai dago
ta pozik egon daike
azke dalako.

Arkaitz-oyarrez ziar
amatxu billa
dabillan oreintxuba,
beti ijutika,
pozik bai dago
ta pozik egon daike
azke dalako.

Iren errijon bertan,
miñez alaka
eta intziriz aguan
euzko gaxua;
pozik ez ago
ta ezin egon, azke
ez azalako”.

Eta goi-arnasazkoen artean, Josu gurutzean josi ta illari egiña.

“Illundu da euzkija, itxasua asaldatu,
ikara ein dau lurrak, oztija begikatu,
ta tximistargi-ostez, orru-daik ostotsak;
txadon-euna eten da, berbixi dira il asko,
ta ludija oñazez lotu da bixi-bako.
Dana amaituta dago! Il da Goiko-Jauna!
Gorbai, garbai dagixan! Gurutzaren aurrian
ta gure Josu-Kisto, gurutzaldu-bian
apal belaunbikotu gadixan min-miñez;
ta autortu dagitsogun, oben ein dogunarren,
bere espan deunetatik iñoz entzutiaren:
“Gaur berton donokijan nerekin agoke”.

Itz-otsak izan daitekez erne-azten dituen ideien antze-ko, naiz ezti, naiz zakar.

AITA ONAINDIA

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (XVI)

Arizkun'en egun batzuk geroazala, berbetan jarri giñan gure txabola aurrean ango erritar bategaz. Egun bi edo iru lenago euskaldun emakume bi eldu zirala an batallioian eukezan anaiak ikustera, esan euskun. Ori entzun genduanean geure arrebak izan eitekezala bururatu jakun, an euskaldun gitxi gengoan da eta kezka jarri giñan zer jazo ete zan.

Laster jakin genduan dana. Lagundiko alferezak, Arteta'k, deitu euskun. Teodoro lengusuaren arreba Maria Anjeles eta nire arreba Justina izan zirala gu ikusi naian, baiña komandanteak ez eutsela laga, oraindik denpora gitxi geroala an da. Ta beragaz joanaz naibeste kontu esan genduan. Ia zegaitik gudeari iges egin geuntsan itandu euskun eta bildurtzen giñalako erantzun geuntsan. Mutil gazteak gudeari iges egiteak arritu egiten eban. Baiña, al izan balebe euneko larogeirek iges egingo eutsala ez dago eziparik.

Arek uste eban gu gudara joan bagiña euren alderdira joango giñala. Egia esateko, katoliko euskaldunarentzat gauzak ez ziran argi etorri, ez egoan itsu-itsuan batera edo bestera joaterik; alan be neu beintzat joatekotan euskaldunakaz joango nintzan eta lengusua be bai.

Guri laguntzeko jarri zan Arteta jauna; berak ez ebalabear baiña bosgarren lagundiko alferesa, Ezkurra, asistente bearrean arkitzen zala ta Teodoro aukeratu eban orretarako. Ori gauza jakiña zan; a ta ni batera aurkeztu ezkerobeti bera aukeratuko eban. Baita neskak be. Nire ondoan mutil jasakoa zan. Erderaz be nik baiño askotaz obetokian. Baiña gero, ez dakit zelan, ofizinako langillea zala jakin eragin eutsan Teodoro'k Arteta'ri. Ori jakin ebanean, ofizinako aukeratu eban eta asistentetza nitzako geratu zan.

Sekula entzun ez neutsen arren, alferes biak jakingo ebela euskeraz uste dot. Ezkurra'ren berbetako doiñua euskaldun jatorraren doiñua zan. Naparrak ziran biak.

Arteta'gaz egon giñan eguna Gabon aurrekoa zan; eta Gabon egunean janaldi bat egin gengian gure arrebak ordainduta laga ebela esan euskun eta arratsaldean gudari bat zaintzaille genduala ango Fonda esaten eutsenera bialdu ginduzan. Guk geunkan goseagaz eta onenetik nai aiña jatera. ¡Alako aukerarik!

Tortillea, aragia ta oilloa ziran atera euskuezan jana-

riak. Gure zaintzaille gudaritxoa, sekula naibeste jan bako gazte ziztrin gizajoa, bereala bete zan. Guk lengusuoak, ostera, bildurtzeko aiña jan genduan. ¡Gizonaren urdaillean ba-dago tokia, batez bere utsik dagoenean!

Gabaz ez giñan joan aparria, arrantxoa, artzera; Gabon egunari egokion lez obeagoa ta ugariago emon eban baiña etxetik be pardela artuta gengoan eta ez geunkan arrantxo bearrik. Ta arratsaldekoaren gaiñean jekin barriro jateari!

Nire bizian ez dago geiago jandako egunik. Ta ondorena be alakoxea izan zan. Ordu batzuk lo eginda gaberdian esnatu nintzanean nire kantzontzilloak eta ipurdia jzelan egozan! Beno, barre egitekoa bere ba da ta ez esatea obe.

Andik laster asistente lez asi nintzan. Ez zan zeregin txarra. Goizetan oiñetakoak garbitzen neutsazan eta alegiñak egiten nituan dizdira ataraten. Alferesa neugaz ez eiteala aspertu neure paltaz beintzat.

Bost gudari agintaririk etxe baten jaten eban, bertako etxekandreak gertuta ta guk asistenteok egiten genduan maira atarateko zeregiña. Oneik ziran bost ofizialak:

Ezkurra, ona, erderaz esan oi dan kanpetxanua; Arteta, zuzena, zital antzekoa; bere betaurreko ta arpegi fiñagaz josulaguna zirudian; Virto, on ona, apurtxo bat gizajoa, nire nagusiaren seme (gero, nagusia) Baldasar'egaz batera ikastetxean egondakoa, berak esan eustanez; Ciganda, kirten antzekoa, beragaz izandako gero esango dodan zerbaitegaitik, ez neban begiko; ta bosgarrena, Hoz ebala uste dot abizena, teniente (besteak alferezak ziran) ona ta ona izatea billatzen ebana, zalduna.

Maian, jakiña, kontu asko eukiten eban esateko. Eurai entzundakoetatik gauza bat gomutan geratu jatan; Hoz'eri entzundakoa. Gudako ez dakit zein lizkarrean (geientan gudako kontuak izaten ziran) onako au esan ei eutsen ez dakit zein gudaiburu edo jeneralek, zera, pusillaren puntan arerio bat eroanari amabost egunerako etxera joateko baimena emongo eutsala.

Gudea, gudea izango da (gudea egiteko errezoiak izatea ez da erreza) baiña katoliko baten aotik olako barbarik ezin urten daiteke.

Len esan dodan Ziganda'zko autotxoa au izan zan:

baten maian berari emotera niñioian tenedora kirnetetik barik ortzetatik artu neban eta besoa jasoaz ia belarriondokoia emon eustan. Tira, okerragorik ez zan jazo Hoz'ek aldeztu ninduan-da.

Ni lez asistente egoan, Donibane Loitzun'dik ezagutzen neban Luis Villar donostiarra. Abots ederrekoa zan mutill au (ni baiño zartxoagoa) berari aiñako baritono gozorik askori ez dausat entzun. Ia beti alkarregaz ibiltzen giñan, niri etxetik bialtzen eustezan antxoba fileteak jan eta txikito bat edo beste edanaz.

Igande arratsalde baten, ez dakit berak ala neuk, alferzagaz egon bearra geunkan eta Fondara joan giñan ofizialak antxe egozan da. An ez egoan beste tokirik jan-edan bat egiteko nai kafe bat artzeko. Fonda arek toki bat edo bi baiño geiago eukazan eta alferzagana baiño len ango erritarrak egozan areto edo gela baten geratu giñan. Ez dakit kartetan ziarduen ala ez; Baiña gu joan giñanean abestia baiño ez egoan an. Villar asi zan abestuten; gero neuk be bertso zarrak tartean abestuaz, pozik egozan angoak.

Olan geniarduala, nire alferrez Ezkurra, ez dakit zetara, gure aretora sartu zan eta Villar abestuten entzun ebanean aoa zabalik geratu zan eta beste ofizialai deitzera joiala ta, bereala an egozan danak. Egundoko abesti ta alaitasuna erabilli genduan danok. Jakiña, abestiak danak euskerazkoak ziran.

Ta onegaz zer ikusia dabelako urrengo baten beste ardandegian jazo jakuna edestu bear dot.

Baten, gure lagundian egoan gu lako langille baten laguna etorri zan. Langillea, bilbotarra, nik "guitarron" desizenez gomutatzen dot. Oguzkeran "erre" sendoa ataraten eban eta danoi "guitarron" esateko oiturea eukan. Bere-bere esateko moduz urtetzen eutsan berba orrek eta ortik dator nik desizen orregaz bera gogoratzea.

Egun baten, esan dodan lez, bere lagun bat etorri jakon ikertzera. Laguna, gudan frankotar ofiziala izandakoa ei zan. Ta "guitarron" arek, bere lagun aregaz askari bat egin bear genduala ta Elizondo'tik datorren bide zabalak Arizkun'era eta Errazu'ra artzen daben bide gurutzean egoan ardandegira joan giñan, bera "guitarron", Villar, Eduardo, neu ta gudariren bat. Ba-geunkan sarjentoaren baimena.

An sartu giñanean bertako alabea zan amasei urte inguruko neska polit bat urreratu jatan. Len esan dodan Fondako gure abestiak entzun ei zituan bere anaiak kontixu ta alako esan bearrean joan ei zan etxera "trabajadorietako" batek sekulako bertso zarrak abestu zituala-ta. Ta

gu ardandegian sartu giñanean eta ni ikusi ninduanean, len esan eutsan "trabajadorietako" neu nintzala anaiak orduan esan ei eutsan eta orixe esatera etorri jatan.

Ez nintzala ni esan neutsan, bestea zala. Baiña bera ezetzean egoan. Itxurea zanez, bere anaieari nire kanta zarrak atsegiñago izan jakozan Villar'ek ain abots ederrez abestu zituan abestiak baiño.

Arratsalde aretan be naikoa abestu genduan ardandegi aretan. Villar'ek eta Eduardo'k bakarka bere bai. Ta atsegiñez gengozala iguri eldu jakun estutasuna! "Guitarron"en bilbotar lagun aren zain gengozala, bera gure batalloiko komandantegaz sartu jakun ardandegian. A ikusi genduanen mai azpian eta al zan lez eskutau ta urten genduan ardandegitik "guitarron" ez bestek.

Alantxe amaitu zan arratsalde aretako gure pesta.

Agiña ataratera joan nintzan Donostia'ra baten. Orduarte sekula atara barik nengoan. Bein, Donibane Loitzun'en agiñeko miñez nengoala joan nintzan ataratera, baiña arratsaldeko orduak aurrera joiazan eta atera urten eustan neskameak biaramon goizean joateko esan eustan. Ta biaramonerako alde egin eustan miñak eta ez nintzan joan.

Arizkun'dik joan nintzan aretan, Oña abizeneko donostiar erdalduna zan batalloiko pratikanteagaz joan nintzan. Donostia'ra eldu giñanean, eta agiña ataratea nai neban itandu eustan berak. Itaun a zer asmogaz egin ete eustan berari begira jarri nintzan eta baietz erantzun neutsan, uste orregaz joan nintzala. Berak, orduan, derriorra ez banaban egin ataratea, urrengo baterako lagako genduala esan eustan. Nik, lepoa jaso ta bere esanetara geratu nintzan. Olan bada, nun batuko giñan alkarrereri esan eta bakotxa bere bidetik joan giñan. Ni, Mertzedes arrebea neskame egoan etxera, Oquendo, 2, Ramón Sierra jaunaren. Ez dakit orduan, nire zaintzaille, gudaria eroan neban ala ez; ez ziurrago. Beintzat, baten gudari bategaz joan eta biok an gozaldu genduala gogoan daukat.

Gauza polita jakin neban bertan etxean. Gudea asi zanean ba-nituan liburu batzuk. Gitxi; amar-amabosten bat. Batzuk arrebeak berak nitzat erositakoak. BIOTZ BEGIETAN, Lizardi'rena, Aitzol'en LA DEMOCRACIA EN EUZKADI, Gallastegi'tar Elias'en POR LA LIBERTAD VASCA, lenengo ABERRI EGUNA, Agirre'tar Toma'ren GAZIGOZOAK, BERTOLDA TA BERTOLDIN, BIZKAYA POR SU INDEPENDENCIA ta beste iru-lau. Jakiña liburuok neure etxean geratu ziran; eta aldi aretan olako liburuak eukitea arrisku andiko kontua zan eta arrebeak artu ta bera neskame egoan

GUDALDIAN

Sierra jaunaren etxera eroan zituan eta sukaldeko arasan eukazan gordeta. Nagusi jaunak eta bere emazteak ez euken zer egiñik sukaldean eta areik arkituko zituan bildurrik ez egoan. Prankotarren Gipuzkoa'ko lenengo gobernadorea izan zanaren etxean egozan eusko abertzale liburuak. Nun ziurrago? ¡Zelako atsegiñez eskuetan artu ta erabilli nituan!

Baiña ori baiño politagorik ba-egoan.

Edesti apur bat azaldu daidan.

Franco'ren matxinadea sortu ta gorriak nagusi ziran aldi aretan Sierra gizajoa etxetik alde eginda bere burua ezin gorderik ibilli zan. Bere emaztea ez dakit etxean ala nun zan, beintzat nire arrebea, prankotarrak Donostia'n ziraneko Ondarru'n egoan, bere amaren etxean, geure etxean. Ta gorrien azkenengo egunetan gudarientzat jatekoa egiten sukaldari egon ei zan Eusko Batzokian. Ta a laga bearra eldu zanean, gomutakitzat, ango jikara ta plater txiki bikotea artu ei eban, eusko ikurrin margokoa eta batzoki aren izena idatzita. Jikara ta platertxu areik be Sierra jaunaren etxean egozan, antxe sukaldeko arasan, kaltzerdi txiki baten barruan sartuta ta kaltzerdi musturra lotuta. Ta areik be ikusi nituan musturra askatuta.

¡Nok uste izango eban prankotarrak Gipuzkoa'n ipiñi eben lenengo agintari nagusiaren etxean alako gauzak arkitu eitekezanik?

Baiña Sierra jaunak kontu onek gaur jakingo balitu, ez dot uste asarratuko litzakeanik; barre egingo leukeala esango neuke, bada etxe aretan ondo ekien nire arrebea zelakoa zan olako kontuetan eta gai onezaz iñoiz jardun bere bai.

Ara orduan neuk arrebeari entzundako kontu polit bi:

Sierra jauna, baten, Ondarru'ko osagille jaun bategaz egon ei zan, L. A.'gaz. Osagillearen erritarra zan Etxaburu abizeneko neska bat eukala neskame esan ei eutsan Sierra'k. Bestea lenengoan ez ei zan gogoratzen neska a zein izan eitekean. Alako baten kontura etorri zanean lenengo berbea, zera izan ei zan: neskameari ez isteko Ondarru'ra joaten autarkia emotera. Auteskundeak gaiñean ziran eta jaun arek ondo ekian gurean norentzat izaten ziran autarkiak.

Sierra jaunak berak esan eutsan au danau nire arrebeari. Jakiña, laga eutsan Ondarru'ra joaten. ¡Oba ez!

Ta beste kontua:

Sierra jauna aldi aretan DIARIO VASCO'ko zuzen-

daria zan eta Bilbo'ko EUZKADI egunerokoaren zuzendari zan P. R. Olano'gaz eztabaidea izan eban euskerea zala-ta. Sierra'k tautik ez ekian euskeraz, baiña besteak bere ez ekiala ba-ekian eta bere izparringitik zemaia jaurti eutsan, erriaren aurrean euskeraz nor geiagoka egiteko. Ba-ekian besteak ez ebala aurrera egingo.

Kontu onezaz etxean ziarduela, euskeraz nor geiago zan jakiteko erriaren aurrean aurkeztu balira ea zer esango eban itandu ei eutsan Sierra jaunari nire arrebeak ta berak erantzun:

– Iñazio, gure patroia andia (olantxe asierea bakarrik) eta orain gogoratzen ez nazan eta euren esanaia ez ekian iru-lau berba suelto esan ei zituan. Axe zan ekian guztia, euskeraz.

Egun baten albista txarra emon eustan Ezkurra'k; gu Prantzia'n egondakook Miranda'ra bialtzeko agindua etorri zala, gero andik Algeciras-edo, ego aldeko toki areitara eroateko.

Emen, etxeakoak arrabete bidean genduzala, polito konpontzen giñan baiña Jaungoikoa'k ekian toki areitara eroaten baginduezan gorriak igaro bearko genduzan. Alan be egunak etorri ta egunak joan eta iñok ez eban ezer esaten eta aztu egin nintzan auzi onezaz.

Lenago aitatu ditudan bost gudari agintariak, Ezkurra ta lagunak aldatu egin ziran lengo etxetik. Nire nagusia ez beste laurak etxe bat artu ta "trabajadorietako" bat sukaldari ipiñiaz euren kontura jatekoa egiten asi ziran. Sukaldari, ain zuzen, Itxasu'ko Etxedoia'n alantxe izandako Muruaga'tar Kepa bermeotarra ipiñi eben. Gure lagundikoa zan eta zeregin orretarako neuk billatuko nebala uste dot, bada, a sukaldari lez ezagutzen eban bakarra neu nintzan. Bear bada, lagundian sukaldaria eskatuko eben eta bera aurkeztuko zan. Ez dakit ziur zelan izan zan kontua, baiña neuk emon nebala bere izena uste dot. Berez buru jaso zan bera, gogorra, iñori bildurrik bakoa, baiña an ilda arkitzen zan, errukia emoteko moduan.

Sukaldari jarri zanean, barriro biztu zan.

Ezkurra, lo egiten eban lengo etxean bertan jaten geratu zan. Len jan etxe baten eta lo beste etxeetan banaturik egiten eben.

Ezkurra egoan etxea kale baserria zan, adiñean aurrea joan andra andi zabal alargun baten etxea. Ez naz gogoratzen ez andrearen izenagaz ez etxearenagaz.

Neu be etxe aretan lo egiten jarri nintzan. Nai izan

baneu oean egingo neban baiña nengoan modurako geiegi iruditen jatan eta lurrean koltxoia ipiñita egiten neban.

Lotara joan aurretik su ondoan agoten giñan (beko sua egoan) etxekandrea, Ezkurra ta irurok, ango ta emengo kontuak esaten ixildu barik. Iñoiz politikaz be berba egin genduan Ezkurra ta biok. Jakiña, beti ez gentozan bat eta ez ta bai ibilten giñan. Baten aurreregi be sartu nintzan eta estu ibilli nintzan ondo geratzen. Abertzaleak eta karlistak batera jokatu bear ebela esanten eban, bien gogaiak erdi bardiñak zirala ta.

Queipo de Llano'taz berba egin genduan baten. Barriro urten nai baeben beragaz kontateko esan ei eutsen karlistai. Nik orduan berari:

—Zer, barriro gudara?

—Ez baiña, beintzat, Queipo de Llano geugaz dago edozetarako.

Bertan etxean gosalduten neban. Errial bat ordainduta pota bat esne (litro erdi) esne artzen neutsan etxekandreami.

Erregeen inbidiarik ez neukan orduan.

Baiña beartsuen etxeetan pozak gitxi irauten dabela da esakerea ta neugaz bere orixe jazo zan. Batalloiko agintariak ziñoanez, gudariak izan bear ei eben asistentiak eta ez langilleak eta laster lagundira joan bearko nebala besteak lez izatera Ezkurra'k esan eustan.

KAMINAZPI

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1986

UDAKO IKASTAROA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK : ASTELENETIK EGUENARTE
GARAGARRILLAN

ORDUAK : ARRATSALDEKO 5'etatik - 7'etara
EDO 7'etatik - 9'etara

ORDAÑA : 3.000 peseta.

IZENA EMOTEKO TOKIA : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14 - 2
BILBO.
URRUTIZKIÑA 423.53.22

CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO -

HORAS: 5 a 7 ó 7 a 9

PRECIO: 3.000 pesetas.

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423.53.22

EMEN, OR, AN

EPAILA-MARTIA

17.—Estanislao Urruzola “Uxola” Tolosan il: Tolosarra, 1909 an jaioa, gazte-gaztetatik idazlea. Guda aurrean “Argia”n eta gudatean “Eguna”n; gero “Euzko Gogoa”n, “Arantzazu”, “Zeruko Argia” t.aben. Ainbat antzerki ta nobelaren egilea... “Agur egin genion Prantziskotarren elizan; jendea gainezka zan... Iñor gutxi berak aiña lan egingadakorik, gure erriak ezagutu ditun urte biurrietan... Abertzalea, euzkaltzalea, euzkera-zalea, iñor euskera-zale izan ba’da”... (“Uzturre”k).

23.—Gaurko bakarrik egunkari bat geiago: “DEIA EUSKARAZ”, euskera utsean idatzia.

21.—Erriko euskereaz kezkatu, bizkaiera indartzeko bizkaierazko idazleen alkarte sortzeko batzarra Euba’n: O.E.O.’ko Begiratzaille Orokorra dan Jabier Uriarte’k iñoanez, azken urteotan iñoiz baiño alegin geiagomeak euskalduntzen, iñoiz baiño euskaldun barri geiagomea, eta ETB be daukagunean, Euskerearen erabilleraren sendotu ete da? Politikoen eta euskerearen erabilleraren artean troka sakonegia. Bizkaieraz egiten dogunok % 40 eta bizkaiera bizi danik nabari ez.

J. M. Etxebarria’k: batasun bidean, euskera aberats bat sortzeko, geroago ta geiagoren ustez, bizkaiera eskolaratu bear da; zabaltasunez aurrera joateko bideak jarri bear dira daukaguna galdu barik.—A. Zubikarai’k: bizkaitarrok euskaldun agoteak gara, gaixoak; galbideari mugak jarreko eskubide osoa daukagu; ez iñoren kontra; bizkaierari bizi barria emoten baiño.

UZEI’k argitaraturiko Zuzenbide Iztegia aurkeztua Deustu’ko Unibertsidadean: Erretorearen orde, M. de Gereño, Zuzenbide Fakultadekoak zorionik beroenak iztegiaren jaiotze egin dabena.—J. Iturbide Euskalerrri’ko Unibertsidadearen Erretore-ordeak: iztegi onegaz gainditzen dala euskaldunek euron arteko arazoentzat erderazko zuzenbidea erabili bearra.—A. Agirreazaldegia, UZEI’ko zuzendariak, UZEI euskeraren kultura normalizazioaren zerbitzurako erakundea dala.—X. Arzalluz’ek irakasle ta abogadu lez, eskerrak egin UZEI’ri egin dauan lanagaitik: beretzat oore aundia izan da zuzenbide-adar bat osorik euskeraz emon al izatea.—Azkenez, Makua’k, UZEI’koak eta euron lanak eskertu nai dituala: gaurkoa bai benetan altxorra! esan eban.

Azkain’go alkate eta Ipar Euzkadi’ko “Goiz Argi” alderdi abertzalearen erataile dan Ander Luberriaga, bildur da EAJ’ren banaketak PSOE’ren garaipena ez ete dauan ekarriko.

30.—Aberri Eguna; bakoitza bere aldetik: Iruña’n HB; EE Zarautz’en; EAJ, Bilbo, Legutiano, Donostia. Lekunberri-Aralar’en.

JORRAILA-APIRILA

3 eguena.—PSOE’ko Napar Gobernuan dagon Urralburu’ren salakuntzagaitik, Euzko Jaurlaritzak, bere armarritik Naparroa’ren kateak kendu egin bear.

14.—Simone de Beauvoir idazle frantzetar ospetsua il da zartzaroan Paris’en: eten bako burruka gogorra, emakumearen eskubideak giza-mailla barruan lortzeko.

17, eguena.—“Kili-Kili”k 20 urte gaur. Retolaza’k, Bilbo’ko S. Anton zubiondoan, ume euskaldunen alde, alfabetatzerik ez egoanean “teilatuta bako ikastolan” irakasten asia, bakoitzari bere erako euskera sendotzen: bizkaitarrai bizkaieraz; gipuzkoarrai gipuzkeraz. “Orixe da gaur be egin bear dana” diño Retolaza’k.

18, barikua.—Bizkaia’ko Aldundiak, Erkiaga idazle ta Makua Aldun Nagusiarekin, aldundian bertan, ondo merezitako omena Augustin Zubikarai ondarrutar idazleari: bere bizitza guztian euskerari ta Euskalerrria’ri eskaiñi dautson lanagaitik. Aiztu eziñeko jai, txistulari, auresku, bertsolari tab.egaz. Itzaldi unkiarriak, biozkorrak.

26, larunbata.—Gernika’ren 49. bonbaketa urteurrena: Gernika’k orduan egazkin 1937an, nazien menpe ildakoak gogoratu: besteen artean Leizaola ta Ardantza lendakaria zirala Meza Nagusia Karmeldar Mojetan.

—Atzo arratsaldean, Euskararen Egunak 8.000 lagun bildu Iruña’n: “jai giroan eta errebindikatiboan euskararen plangintza ta normalizazioaren alde”.

11-12: ELA euzko sindikatuak 75. ezteguak; 1911’ganean, eun langile inguruk, EUZKO LANGILE ALKARTASUNA sortu.

MAIATZA-LORAILLA

3, larunbata.—Intza’tar Damaso Aba kaputxino napparri, EAJ’ren NBB’eko kultura sailak omenaldia: Intza’n 1886 an jaioa, kaputxino mutikotan sartu ta euskera galdurikoa. Amaren bisiteak bere pekatua erakutsirik, Arturo Kanpion’en laguntzaz asita barriro euskeraz jabetzen da. Bera da euskaltzaiñik zarrera.

—71 urteko gizona, Franco’ren alduan eriotz epaia emondakoa, Donostia’n ETA’k errakuntzaz illa: bera barik beste bat il gura izan ei eben...

—5’etik 11’ra Bilbo’n Euskerzaleak’ek eratu Bizkaieraren III.astea: Atelenean “Erri Ipuiañak, izlaria Etxebarria tar JM irakaslea.—Asteartean, “Lauaxeta’ren gizatasuna ta Euskalerrri’ko eta Europa’ko olerkarien ezagupena Lauaxeta’gan (L. Arostegi Aitak).—Eguastenean, J. Kerejeta’k” abizenen garrantzia Euzkadi’n).—Eguenean, “Euskerearen irakaskuntza erdimailako ikastegietan” X. Uriarte’k.—Azkenez, barikuan “Bizkaierazko Aditza”.

—8, eguena: Durango’n, Astarloa Kultur Taldeak eratu itzaldia: “Euskera” mai ingurua. (Egindako itaunak eta eginbakoak: bizkaiera nungoa da ta nun egiten da? Bizkaia’koa ta Bizkaia’an. Baiña Bizkaia’ko zein lekutan? Zein ikastolatan, zein “Uniberchitatetan?”. Zein Udaletxetan?...).

—29-Euskal Ebakeraz jardunaldiak Durango’n.

UNAMUNO-REN EUZKADI'GANAKO JOKABIDEA

Sarritan esan dodanez, ikusiteko begiak, ikusmena bear da ezetariko zalantza barik eta, esaten diran gauza baikorak eta sarri-askotan zitalkeri asko be entzuteko entzumen argia. Eta orixe-gaitik edo, ikusi doguzanak ikusi, irakurri doguzanak gogoratu ondoren, oso sail, gaitx egiten jaku barra-barra aldi onetan dabiltzan ospakizun batzuk siñistuten, guztiz aurkako iduritutzen jakuzalako, Unamuno eta Jugo'tar Miguel'ek (ez dot euzkeraldu nai beren izena) Euzkadi'ganako bere bizi guztian euki daben jokabidea lez. Eta, ori ta guzti be euzkotar jakintsu zintzo bat izan ba'litz lez aurkeztu nai dauskue azken-aldian, bere esakera zitalak eta euzko abertzaletasunari izan eutsan gorrotoa aztuta ba'genkon lez euzkotarrok eta batez be bizkaitar euzkaldunok.

Gizon jakintsua eta idazlerik gorengoa izan zala? Ez dau iñork ukatzen, baiña, Salamanca'n, España'n españieraz eta españiarrantzat beste edozein euretariko jakitun bat geiago lez eta, ez euzkeraz eta euzkotarrantzat, gaztelera eta gaztelaniari begira ta bere ederketuriz baiño.

Unamuno'k zelan oldoztutzen eban jakiteko, or daukaguz 1901'an Bilbo'n ospatu ziran euzkal Lora-Jokoetan esan zituan itzak, gaztelera baiña argi idatzita aurkitzen diranak, Euzkadi'tzaz: "Aldenduz zoazen erri bat zara". Eta geiago esaten jarraitu eban: "Ludiko izaerari enbarazu egiten dautsazu, joan bear zara, il egin bear zara, egotzi geratzen jatzuna menperatuta eutsiten dautzun erriari". Itz politikak! euzko-odoleko bilbotar jakitun batek esateko Bilbo'n bertan, euzko abertzaletasunaren biotzean.

Orixe zan gaur-egun euzko abertzale batzuk omendu nai daben Unamuno, euzkeraren eta beraz Euzkalerria'ren etsai purrukatua.

Izango da orraitioño gure irakurleren bat edo beste esango dauana: Ori orduan izan zan, orain bear ba'da... Ez irakurle, orain bizi izan ba'litz be bardin-bardin izango

zan Unamuno, bere bizi guztian jarraitu eta iraun daualako euzko abertzaletasunaren etsai gogor.

Salamanca'n goratzarre ospetsua egin dautsoela? Ondo ikusiten dogu, bada, salmancatarrak eta bai gaztelar guztiak be zor aundia dautsoelako gizon jakitun orrei, baiña, ez guk euzkotarrok, euzkaldunok, on asko egiteko almena euki arren ez-dauskulako kalte baiño besterik egin. Eta ez ez-jakiñagaitik, ez orixe! beti España'ra begira bizi zalako baiño.

ALTUNA'TAR JOSU

EGIA ETA GUZURRA

Baiñola, aspaldian,

EGIA eta GUZURRA, itsasora uger egitera joan ei ziran.

EGIA, Jaun Andia, zuriz jantzia, gorbata ta guzti dotore.

GUZURRA, buruarin, jantzi gorriakin, jolas-zale.

Soiñekoak ondartzan utzita, biak uretara sartu ziran.

Baiña, EGIA urpean murgildu zanean,

GUZURRA, EGIAREN jantziak lapurtuta,

bere lagunaren soiñekoakin jantzi zan...

Arrezkero, ortik zear dabil GUZURRA, artoa, lotsa-galdua, erriz-erri, kalez-kale, manifestaldietan
BAKEA eta ASKATASUNA deadarka.

EGIA, ostera, narru-gorrian, biluzik, kalera urteteko lotsaz,

or dabil danen ankapean, baztertuta, zapalduta,

jabebako txakur ustelaren antzera zorriak janda,

bere lotsa gorria ezin estaldurik,

gosez ilteko bazter bat aurkitu eziñik.

GOIKOETXEA IÑAKI

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kolean (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

OTO KURSILLISTA

Pototo, kale-umeak, Oto baserritarrari:

—Ik ez dakik euskararik, ez dakik gramatkarik eta gaueskola bearrezkoa dok iretzat euskaraz ikasiko ba'dok, nik ikusi joat iri gaizki itz-egiten, euskaraz ondo egiten ez dokalako.

—Bai, bai, guk baserritarrok ez dakigu ezer. Ikusi zaitut esaten dogu guk, ez ikusi diat... Ez, ez dakigu ezer.

—Zuen euskarak ikullu eta korta-usaiña galanta. Ez gramatkarik eta ez ezer. Sekulan izan aiz euskarazko kursilloetan..?

—Ez, ez, ni ez, Oto suminduta eta apalduta.

—Sekulan izan aiz kursillista..?

—Ez, ez naiz kursillista izan; izatekotan ni kursitonto izango nindukek.

—Orra, ba, egundo kursillorik gabe ez daukak euskaraz ezer esateko eskubiderik. Agiria bear da eskuan, ondo jakiteko. Ik ez dok ezer.

—Nik etxean bakarrik ikasi dot euskeraz.

—Eta ire etxean zer jakiek ignorante analfabeto batzuek besterik ez diran orreik? Sekulan euskarazko kursillo batera joan ez diran eta mendiak larrak erretzen besterik ez dakien orreik..!

—Bai, larrak erretea ume-umeetatik ikasi izan dogun gauzea da; baiña, euskerazko kursilloak guk neguan suaren inguruan egiten ditugu sukaldean.

—Eta, zein dozue irakasle? Kortako astoa irakasle arrantzaka eten gabe; orixe izan da beti zuen irakaslea. Zientifikoki ikasi barko dozue euskara euskaraz ezer jakin nai ba'dozue.

* * *

Oto gizarajoa joan zan gaueskolako oietako "kursilo" batera. Irakasleak euskaldun barriak ziran eta kursilloak egindako paper-agiria ba eben beintzat. Bat eta bi be bai.

Andik urten eta etxera eldu zanean aitari esan eutson:

—Amari ikusi diot ferian...

—Zer ikusi esak amari? Anka-azurra ala zer..?

—Berari ikusi diot.

—Ori al da kale-umeek erakusten datzuen euskera..? Orretarako oba ez joatea.

—Bai, neri esan didate gure euskerak ikullu eta korta-usaiña eta atsa duela galanta eta analfabeto utsak besterik ez gerala.

—Gu analfabeto izango gara, baiña euskaldunak. Eta zuen irakasleak erdaldun-kumeak dira: erderaz egiñak, erdera buruan eta euskera ezpañetan. Ortik naaste orretatik, zer euskera aterako dala usten dozu..?

—Ez, ez, aita, gu gera iñuzuak. Oiek eskolatuak dira eta kursillo pilloa egiña daukate eta guk bat be ez...

—"Kursiloak" eskolea izango dok eta eskolea bearrezkoa da. Guretzako be bai. Guk amaren bularretik edozki genduan euskerea. Ikusi izan dodaz emen itxas-ertzean, baserrietan euskeraz ikasten; baiña, aien euskera eta gure erdera, antzekoak; biak bizkiak... Gure etxeko unibersidadeak millaka urte ditu euskera lantzen eta bertan sortu

zan, eta karabinero batek neri euskeraz erakusteko ondo aldatu barko dau bere burua... Bitartean "euskara" ori euskeraren azala besterik ez dok izango. Bear ba'da, orrentxe billa ibilliko dira: erderaz egindako buruak geinak izanik, buru-toleste orreitan euskera jatorrik ez dalako sartzen, buruak euskaldundu bearrean, euskera erdaldundu eta danok pozik. Orretarako gure euskera jatorra estorbu bat besterik ez da.

* * *

Oto gizarajoa gelditu zan lenago baiña okerrago. Aurrapenak kalean izan oi dituk eta atzerapenak baserrian. Eta, euskera arloan, ez...?

"Zertan dan, zertan dan..." erantzun eutson sorgiñak aldamenetik.

OTO GERRATEAN

Zanga eta errenetan sartuta dagoz gerratean. Or dator Oto muniziorik betetako kaja aundi batekin eta komandanteari garraxi egiten dautso:

—Komandante jauna, nun laga bear dot munizio-kaja au?

—Bajuago itz egin eidazu eta lagun bateri bezala; badakizu, aurreko orreik komandanteari botatzen dautsoe lenengo tiroa. Ika egidazu lagun bateri egiten dautsozun antzera.

—Aizak txerri alena, non arraio bota bear joat kaja madarikatu au?

OTO ETA MOISES

Andre Josepa, Oto'ren emaztea, kirioetako sendagille batengana joan jaku:

—Ara, Jauna, nire senarrak, Liburu Santuak irakurri eta gero, bera Moises dala pentsatzen dau.

—Ba! Ori ez da ezer; ez dau betirako izango eta laster pasauko jaku.

—Laster?

—Bai.

—Eta bitartean zelan lortuko dot, baiñura doanean, baiñerako ura ez erdibitza..?

Gero sendagilleak, agiri bat idatzi ondoren, esaten dautso:

—Emaiozu emendik zortzi koillarakada egunero.

—Emendik?

—Bai, ortik.

—Eta, emen koillara nondik sartu bear dot?

—Emakumea, paper orretan ipinten dautzut zer erosi bear dozun eta andik emon.

—Baiña, alaz ere ez dakit lortuko dedan...

—Zergaitik ez?

—Zortzi koillarakada esan daustazu eta nik etxean ez dauzkadaz sei koillara baiña...

ARRINDA'TAR ANES

DIKTADOREA

DIKTADOREA

Atx baten gaiñean, erpin-erpiñean,
gatzelu bat dago,
laiñoak baiño gorago.

Bost torre luzeak ditu arrizkoak,
beren buruak zerurantz arro jasoak.

Bide-zidor aldapatsu batek,
sube antzera zear-mearka, daroa bertara,
ara gora.

Nor bizi ete da bertan?..
Armadun gizonez inguraturik,
zubi, arresi eta urezko fosoz ondo babesturik,
Diktadore Jaun Aundia bizi da, an goian,
laiñoan gaiñean, marfilezko jauregian.

* * *

- “Sartu naiteke?”, itandu neutsan armadun atezainari.
- “EGIA bazara ez”, esan eustan.
- “GUZURRA bazara, bai”,
- “Aurrera, bada”.

Eta gatzelu barru-barruraino sartu nintzan.
Zer ikusi neban bertan?

Diktadore Jaun Altsua, Guztiz Jakintsua,
eguzkiaren antzeko, jantziak diz-diz urrezko,
ezpata garrian, arrokeria buruan,
jesarrita egoan errege-aulkian.

Eskua luzatuz “ordenak” emoten ebazan:
“Zuk au, eta zuk ori”
“Zu emen eta zu an”
“Au olan eta bestea alan”.

Otsein guztiak, ixil-ixilik, txintik atera barik,
Diktadore Jaun Andiaren aginduak zeatz-meatz beteten
ebazan.

Zer geiago ikusi neban?

Diktadorearen marfilezko aulkipean,
ministrariak, militarrek eta erriko agintariak,
belauniko ikusi nebazan “Gure Jauna” adoratzen.

Intzentsu-ontziak eskuetan, berba politik ezpaiñetan,
lurrin-ontziari, ara eta ona, eragiten eutsoen.

Eta “Aintza” abesten eben bitartean,
Diktadorearen agindu bakoitzari, buruak makurturik,
erantzuten eutsoen: AMEN.

Diktadoreak, barriz, bere bi suur zuloetatik,
aintza-putzez beterik, intzentsuaren ke mozorgarria,
bete-betearen artzen eban.

Eta arro-arro egiñik, bere narruaren betean egon eziñik,
globo baten antzera putziturik,
aizetan gora-goraka, igoten asi zan.

Orduan ministrariak, militarrek eta erriko agintariak,
laiñoetan gora joianari, txalo beroak jotzen asi ziran...

Eta globoa, intzentsu geiago eta arroago,
“aintza” kantu errimeago eta putzituago,
azkenean... pun!... lertu egin zan, eta dana auts biurtu zan.

* * *

Orduan ministrariak, militarrek eta erriko agintariak,
beste globo bat putzitutera joan ziran.

GOIKOETXEA IÑAKI

ZER'EN SENDIKOAI OARRA

Eldu gara 99n. zenbakira. Urrengoa dogu ba aspaldion iragarrita daukagun 100n. zenbaki berezia.
Aundiagoa ta dagonillari ta irailari dagokiena izango da. Dagonillaren erdi ingururako artuko dozue.

Orrez gaiñera, 100n. zenbaki orrek ospakizun baten alkartuko gaitu. Oraingoz auxe esan geinke:
Irailaren 20'an izango da batzarra Larra'n, 11'tan. Batzar onetan ZER'en azterpena egin eta aurrera
jarraitzeko bide barriak billatuko doguz.

Gero inguruko jatetxe baten ZER'en idazleentzat bazkaria izango da “EUSKERAZALEAK AL-
KARTEA”ren kontura.

Aurretiaz zenbat maikide izango garan jakiteko, eskaritxu bat: Bazkaltzera etorteko ustea dozuena,
ebagi orri onen barreneko txartela eta bialdu zuzenbide onetara:

Olazar'tar Martin
Eupeme Deuna kalea 1, 2.^a, eskoia
48370 Bermeo-Bizkaia Urrutizkiña 6880343

Egun ori baiño lenago elduko jatzue 100n. ZER eta an aurkituko dozuez jakingarri zeatzagoak.



..... eta 'tar naz
(1.º ABIZENA) (2n. ABIZENA) (IZENA)

Irailaren 20'ko bazkarian maikide izango naz.


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.